

Xabier Gorrotxategi Anieto

El fracaso de la filología en la autenticación de textos antiguos: los casos de Irulegi

Iruña-Veleia Filologiaren porrota testu zaharren autentifikazioan: Irulegi eta Iruña-Veleiako kasuak



Xabier Gorrotxategi Anieto. (Bilbo, 1957). Geografía eta Historian doktorea (Historiaurrea) EHU, 1997. DBHko karrerako funtzionarioa, 1983-2018. DBHko 2. Profil Linguistikoaren Titulua, 1994. Arrigorriagako Bigarren Hezkuntzako Institutuko Zuzendaria, Bizkaia, 2007-2009. Historiaurreko eta historiako ondareari buruzko esku-hartze proiektuen zuzendaria eta zuzendarikidea, prospekzio, seinaleztapen, finkapen, berreraikuntza eta zabalkundearen alorretan 1974tik. Historiaurreko ondareari buruzko mintegi, kongresu, erakusketa eta jardunaldien zuzendaria eta zuzendarikidea 1978tik. 1979az geroztik eremu arkeologikoko ikerketen zuzendaria eta zuzendarikidea aztarnategi askotan: Santimamiñe (Kortezubi, Bizkaia); Areatzako koba (Galdames, Enkarterri, Bizkaia); Benta Laperra (Karrantza, Enkarterri, Bizkaia), eta abar. 1974az geroztik 34 artikulua idatzi eta argitaratu ditu bakarrik edo elkarlanean historiaurreko eta historiako ondareari buruz. Bi libururen egilea: *Carta Arqueológica de Vizcaya. 2ª parte. Materiales de superficie* (1984); *Arte Paleolítico Parietal de Bizkaia* (doktoretza tesia, 2000).

Xabier Gorrotxategi Anieto. (Bilbao, 1957). Doctor en Geografía e Historia (Prehistoria) por la Universidad del País Vasco, 1997. Funcionario de carrera en la Enseñanza Media, 1983-2018. Título de Perfil Lingüístico 2 de Enseñanza Media, 1994. Director del Instituto de Enseñanza Secundaria de Arrigorriaga, Bizkaia 2007-2009. Director y codirector de proyectos de intervención sobre el patrimonio prehistórico e histórico, en los ámbitos de la prospección, señalización, consolidación, reconstrucción y difusión desde 1974. Director y codirector de seminarios, congresos, exposiciones y conferencias sobre el patrimonio prehistórico desde 1978. Director y codirector de investigaciones arqueológicas de campo desde 1979 en muchos yacimientos: Santimamiñe (Kortezubi, Bizkaia); cueva de Areatza (Galdames, Enkarterri, Bizkaia); Benta Laperra (Karrantza, Enkarterri, Bizkaia), etc. 34 artículos en autoría y coautoría publicados sobre el patrimonio prehistórico e histórico desde 1974. Autor de dos libros: *Carta Arqueológica de Vizcaya. 2ª parte. Materiales de superficie* (1984); *Arte Paleolítico Parietal de Bizkaia* (tesis doctoral,

5.1. Laburpena / Resumen / Abstract

a) Filologiaren porrota testu zaharren autentifikazioan: Irulegi eta Iruña-Veleiako kasuak

Zilegi ez ezik, beharrezkoa ere bada edozein elaborazio akademikori kritika historikoa eta orokorra aplikatzea, hura homologatzeko zein gainditzeko. Honetan datza prozedura zientifikoa. Eta kritika hori gauzatzean jabetzen gara zenbait filologok arau zientifiko hori urratu egiten dutela, inpresio hutsetan oinarritutako elaborazio hutsaletara heltzeraino.

Tamalez, edozein aldizkaritan kritika hori adieraztea ia ezinezko bihurtu da, ikerketaren eztabaida

intelektuala eragozten duen korporatibismoaren eraginez. Artikuluak argitaratzeko jarri zaizkidan oztopoak aintzat hartu gabe, zenbait filologoren faltsukeria diagnostikoa azalpen onargarriz justifikatzen saiatu naiz (Gorrotxategi: argitaratu gabea). Iruditzen zait ahalegin hori edozein ikertzaile erraturekin egin behar dela, besteen akatsetik ikas dezagun.

Edonola ere, aldarrikatu nahi dugu konbentzimenduek ez dutela ezertarako balio eta ezin direla arrazoiaren eta prozedura zientifikoaren alternatiba izan. Konbentzimenduak irrazionalak dira eta edozein prozedura oztopatzen dute. Informazio objektiboak erabiltzea ezinezko egiten duten isuri kognitiboak dira, eta gertakariak nabarmentzen denaren aurka interpretatzera ere eramaten dute, desitxuratuta, berezko izaeraren alderantziz ere bai.

b) El fracaso de la filología en la autenticación de textos antiguos: los casos de Irulegi e Iruña-Veleia

No solo es lícito, sino necesario, aplicar la crítica, histórica y general, a cualquier elaboración académica, tanto para homologarla como para superarla. En esto consiste un procedimiento científico. Al aplicarla observamos que ciertos filólogos transgreden esa norma científica hasta llegar a elaboraciones superficiales basadas en meras impresiones.

Desgraciadamente, manifestar esta crítica en cualquier revista es casi imposible, por el efecto del corporativismo de la investigación, que impide un debate intelectual. Aun con las trabas que me han puesto para la publicación de artículos, he tratado de justificar el diagnóstico de falsedad de ciertos filólogos mediante una explicación plausible (Gorrotxategi: inédito). Me parece que se debe realizar ese esfuerzo ante cualquier investigador equivocado para que aprendamos de su error.

En todo caso, queremos proclamar que las convicciones carecen de valor y no pueden ser alternativas a la razón y al procedimiento científico. Las convicciones son irracionales y perturban cualquier procedimiento. Se constituyen en sesgos cognitivos que imposibilitan el uso de informaciones objetivas, e incluso propician interpretar los hechos de manera contraria a lo percibido, distorsionado hasta ser interpretado como lo contrario de lo que es.

c) The failure of philology in the authentication of ancient texts: the cases of Irulegi and Iruña-Veleia

It is not only licit, but necessary, to apply criticism, historical and general, to any academic elaboration, both to homologate it and to surpass it. This is what a scientific procedure consists of. In applying it, we observe that certain philologists transgress this scientific norm to the point of arriving at superficial elaborations based on mere impressions.

Unfortunately, it is almost impossible to express this criticism in any journal, due to the effect of the corporatism of research, which prevents intellectual debate. Even with the obstacles placed in my way for the publication of articles, I have tried to justify the false diagnosis of certain philologists by means of a plausible explanation (Gorrotxategi: unpublished). It seems to me that this effort should be made in the face of any mistaken researcher so that we learn from their mistake.

In any case, we want to proclaim that convictions are worthless and cannot be alternatives to reason and scientific procedure. Convictions are irrational and disturb any procedure. They constitute cognitive biases that make it impossible to use objective information, and even favour the interpretation of facts in a way that is contrary to what is perceived, distorted to the point of being interpreted as the opposite of what it is.

5.2. Ponentzia euskeraz / Ponencia en castellano a continuación / Presentation

Zilegi ez ezik, beharrezkoa ere bada edozein elaborazio akademikori kritika historikoa eta orokorra aplikatzea, hura homologatzeko zein gainditzeko. Honetan datza prozedura zientifikoa. Eta kritika hori gauzatzean jabetzen gara zenbait filologok arau zientifiko hori urratu egiten dutela, inpresio hutsetan oinarritutako elaborazio hutsaletara heltzeraino.

Tamalez, edozein aldizkaritan kritika hori adieraztea ia ezinezko bihurtu da, ikerketaren eztabaida intelektuala eragozten duen korporatibismoaren eraginez. Artikuluak argitaratzeko jarri zaizkidan oztopoak aintzat hartu gabe, zenbait filologoren faltsukeria diagnostikoa azalpen onargarriz justifikatzen saiatu naiz (Gorrotxategi: argitaratu gabea). Iruditzen zait ahalegin hori edozein ikertzaile erraturekin egin behar dela, besteen akatsetik ikas dezagun.

Edonola ere, aldarrikatu nahi dugu konbentzimenduek ez dutela ezertarako balio eta ezin direla arrazoiaren eta prozedura zientifikoaren alternatiba izan. Konbentzimenduak irrazionalak dira eta edozein prozedura oztopatzen dute. Informazio objektiboak erabiltzea ezinezko egiten duten isuri kognitiboak dira, eta gertakariak nabarmentzen denaren aurka interpretatzera ere eramaten dute, desitxuratuta, berezko izaeraren alderantziz ere bai.

Horrela, egoera horren ondorioz, filologoek antolatutako Batzordean eta epaiketako peritu-txostenetan honako osagai hauek ikusi genituen: 1, faltsukeria aldez aurretik onartuta izatea; 2, autentifikazio-prozesurik eza; 3, faltsutzaile baten edo gehiagoren motibazioak eta prozedurak erretratatu gabe gelditzea, horiek gabe ezinezkoa delarik ezagutzea; 4, prozedura zientifikoa ez aplikatzea; 5, antzinatasun-zantzu objektiboak kontuan ez hartzea edo baliogabetzea; 6, existitzen ez diren zantzuak aintzat hartzea eta balioztatzea; 7, gertaeren interpretazio partziala; 8, prozedura arrazionalaren falta; 9, baieztapenak ez justifikatzea datuen bidez, inpresio subjektibo hutsez baizik.



1. irudia 1. IR16364 euskarazko grafitoa, zeramika arrunteko zatian. Partzialki garbituta, eta suak eragindako estigmak erakusten ditu, mendeetan lurperatu izanaren eta espazio-testuingurua suntsitu izanaren ondoriozkoak. Testua: NIIVVIIII(I)AN / GORIBISINA, 'NEU VELEIAN GORI BIZI NA, oraingo euskeran: "ni Veleia Gorin bizi naiz",

Fig. 1. Grafito euskérico IR16364 sobre fragmento de cerámica común, con limpieza parcial que muestra estigmas producidos por el fuego, consecuencia de su enterramiento secular y de la destrucción del contexto espacial. Texto: NIIVVIIII(I)AN / GORIBISINA, 'NEU VELEIAN GORI BIZI NA,', en euskara actual 'ni Veleia Gorin bizi naiz', 'yo vivo en Veleia Gori'. Fuente de la fotografía: Ostracabase.com. Escala en cm.

Filologiak, ordezkari ospetsu batzuen bitartez, aukera ederra zuen ostraken gainean eginiko idazkun zaharren egiaztapenean bere burua aldarrikatzeko, baldin eta prozedura zientifikoa erabili izan balu. Baina erronka horren erantzuna erabateko porrota izan da; izan ere, antzeko egoeratan ateratako objektuak, Iruña-Veleiakoak eta Irulegikoak, guztiz ezberdin diagnostikatu ditu. Horrek oinarritzko azterketak gaizki burutu dituztela eta aurreiritzi subjektiboak nagusitu direla erakusten du. Prozedura zientifiko batean, behaketak errepikatzen badira, antzeko diagnostikoetara helduko da. Gauzak horrela, Irulegin ez zen testua ikusi objektua lurretik ateratzeko orduan, Iruña-Veleian bezalaxe (azken gune honetan batzuetan bai, koordenatutako ostraketan). Azalpena berdina da bi kasuetan: inskripzioak era askotako geruzaz estalita daude, eta bietan froga daiteke hori. Hala eta guztiz ere, diagnostikoa alderantzizkoa da, benetakoa dela batean eta gezurrezkoak direla bestean.


Aipatu berri ditugun filologoen jarduera hauetan ikusten dugu Filologiak ez duela metodorik antzinako epigrafeen azterketan aplikatzeko, ez duelako beste diziplina batzuen prozedurarik erabili nahi, eta bereziki autentifikazio prozesu baten metodorik. Arrazoia da Filologiaren eginkizuna osagarria dela testua ikerketa arkeologiko batetik datorren kasu guztietan. Epigrafe isolatuen kasuan soilik jokatzen du paper inportanteagoa. Eta azken horretan ere, kritika historikoa bera eta kasuan kasuko piezaren barne trazabilitate-elementuak hartu behar dira kontuan (fabrikatutako objektuaren konposizioa, adibidez).

Baina gogora ekarri behar da zein litzatekeen Iruña-Veleiako grafitoan balioztatze-prozesua: 1) denak benetakoak dira, estratu arkeologiko batetik atera direlako, eta benetakoak izaten jarraituko dute, dokumentatu ziren espazio berberetan indusketa forentseak egin eta emaitzarik gabeak gertatzen ez diren bitartean; 2) Benetakoak dira grabatutako ildoen barruan karbonatozko lurra erakusten dituzten guztiak, edo eta karbonato eta fosforo geruzen aztarnak dituztenak (Albisu 2009 eta 2020 eta Van den Driessche 2009, 2014 eta 2016), eta benetakoak izaten jarraituko dute ildo horietatik laginak atera, ildoak aztertu eta aztarna modernoak agertzen ez diren bitartean; 3) Benetakoak dira era askotako itxuraldaketak erakusten dituzten guztiak (apurketak, urradurak, suaren eraginez ildoak higatuta dituztenak); denboraren eragina, hain zuzen, eta benetakoak izaten jarraituko dute frogatzen ez den bitartean posible dela grafitoak faltsutzea objektuen zahartze-prozesuen bidez, aintzat ere hartu ez den gaia.

Hiru elementu hauek grafitoen barneko eta kanpoko trazabilitatearen birkonposizioa ahalbidetzen dute. Horrela, lehenengoa arkeologiaren ardura da; arkeometriarena bigarrena, eta antzinako materialei aplikatzen zaizkien zientziena hirugarrena, kritika historikoaren gaia ere bada eta. Grabatutako mezuek balioztatze osagarria ere ahalbidetzen dute, agertzen diren testuak eta esamoldeak garai historiko jakin bateko adierazpenak badira. Horiek dira Filologia eta Historiaren jokalekuak, beti ere diziplina biak modu kritikoan eta inpartzian aplikatzen badira. Nolanahi ere, diziplina hauek ez daude besteen gainetik, ez dira egiazkotasuna erabakitzen dutenak, besteen lagungarriak baizik.

Aurreko guztiagatik, garbi dago arriskutsua dela filologoen esku uztea aipaturikoa bezalako autentifikazio prozesu bat. Besterik gabe, isilik egon behar dute diziplina zientifikoek dagokien diagnostikoa eskaini arte. Bestela, Iruña-Veleiako kasuan ikusi ditugun moduko astakeriak gerta daitezke. Azken honetan, boikot sistematikoa gertatu da denboran zehar eta gaur arte filologoen aldetik zein haien esanetara dauden agintarientik, denen artean eragozten dutelarik grafitoen benetako antzintasuna argituko luketen azterketa arkeometrikoak egitea.

Filologoen tranpa intelektual bat planteatzen digute hasieratik, Iruña-Veleiako ostrakak faltsuak direla eta Irulegiko epigrafea benetako dela esaten dutenean. Analisia, egia esan, biziatuta dago, aurreko gertakari horiek Iruña-Veleiako kasuari bakarrik eragiten diotelako, non faltsutasuna frogarik gabe diagnostikatu zen. Zenbait filologok uko egiten diote ostraka horien antzintasunaren aitopene txikienari ere; faltsutasunaren ondorio zentzugabea aldarrikatzen dute eta, aldi berean, hori zientifikoki eztabaidatzeko ezintasunak zentzugabekeria baliogabetzea eragozten du.



2. irudia Ilun/irun isoglosa (kanpoko lerro berdea, 1. zk.) Hego Euskal Herrian (Euskal Herri historikoa) Erromaurreko hizkuntzaren isla da, uri-/uri eta etxe-/etxe-ko Erdi Aroko mendebaldeko isoglosarekin alderatuta (barruko marra horia, 2. zk.). Gorriz, galtzada erromatarrek eta hiri erromatarren izenak laburtuta (VE = Veleia).

Fig. 2. La isoglosa de ilun / irun (línea verde exterior, nº 1) reflejo de la lengua éuskara prerromana en *Euskal Herria* (País Vasco histórico) sur, comparada con la isoglosa medieval occidental de uri- /-uri y etxe- /-etxe (línea amarilla interior, nº 2). En rojo, calzadas romanas y abreviados los nombres de las ciudades romanas (VE = Veleia). Fuente del contenido: Gorrotxategi inédito c. Fuente del plano: mapsforfree.com.

Interpretatzeko modu hori dela medio, filologo batzuk ezinbestez kokatzen dira gaur egun konspiranoikoei eta ukatzaileei egozten zaizkien parametroetan. Denak bat datoz ebidentzia edo gertakari objektiboak ez aitortzean, euren aurreiritziak sendotzen dituzten isuri kognitiboak erabiltzean, eztabaida zientifikorik ez onartzean eta bestearen ukazio irrazionalean.

Hala ere, bai Iruña-Veleiakoak eta bai Irulegikoa benetako grafitoak dira, geruza arkeologikoetan aurkituak izan direlako, denborak eragindako era guztietako eraldatzeak dituztelako, eta erdizka bakarrik ulertzen diren mezu originalak daramatzatelako; gutxiago ulertzen da Irulegikoan, antzintasun handiagoa duelako. Ebidentzia frogagarriak eta eztabaidaezinak dira eta arkeologiaren edo arkeometriaren bidez egiazta daitezke soilik.

Filologo horiek ontzat eman ezin diren datuen gainean informazioa eraikitzeak azalpen bakarra du, kontuan izanda beren ustezko maila akademikoa: isuri kognitibo batetik abiatu dira, hau da, inolako irizpide kritikorik gabe, aurrez jakintzat emanik ostraka guztien faltsutasuna. Horretaz gain, prebentzio gisa ezelango eztabaida kritikorik ez onartzea izaten da bigarren ezustekoa filologo horien analisisan.

Guk zientzietan konfiantza izaten jarraitzen dugu, baita giza zientzietan ere. Ez diogu uko egiten prozedura zientifikoak aplikatzeari eta hipotesiak eraikitzeako orduan garaian garaiko datu objektibo esanguratsuak adierazteari. Halaber, espero dugu aurreiritzirik gabeko beste filologo batzuek prozedura objektibo eta zientifikoak aplikatuko dituztela datuetan oinarritutako eraikuntza logiko baten bilaketan, eta ez alde aurreko epaietan edo sinesmenetan.

Bitartean, desinformazioaren aurka borrokatzen jarraituko dugu, apropos bilatutako ezjakintasunaren aurka, kritika historikotik abiatuta, amaierarik gabea dela dakigun borroka batean. Eta ondorioz, grafitoetan ikus daitezkeen elementuak begiratzen eta bereizten jarraituko dugu, elementu horiek antzintasunaren zantzu garrantzitsu gisa interpretatzen, eta baita antzintasunaren froga gisa ere, grabatutako ildoak estaltzen dituzten konposizio desberdineko geruza errepikatuak, esaterako.

5.3. Ponencia en castellano

No solo es lícito, sino necesario, aplicar la crítica, histórica y general, a cualquier elaboración académica, tanto para homologarla como para superarla. En esto consiste un procedimiento científico. Al aplicarla observamos que ciertos filólogos transgreden esa norma científica hasta llegar a elaboraciones superficiales basadas en meras impresiones.

Desgraciadamente, manifestar esta crítica en cualquier revista es casi imposible, por el efecto del corporativismo de la investigación, que impide un debate intelectual. Aun con las trabas que me han puesto para la publicación de artículos, he tratado de justificar el diagnóstico de falsedad de ciertos filólogos mediante una explicación plausible (Gorrotxategi: inédito). Me parece que se debe realizar ese esfuerzo ante cualquier investigador equivocado para que aprendamos de su error.

En todo caso, queremos proclamar que las convicciones carecen de valor y no pueden ser alternativas a la razón y al procedimiento científico. Las convicciones son irracionales y perturban cualquier procedimiento. Se constituyen en sesgos cognitivos que imposibilitan el uso de informaciones objetivas, e incluso propician interpretar los hechos de manera contraria a lo percibido, distorsionado hasta ser interpretado como lo contrario de lo que es.

Así, como consecuencia de ese estado de cosas, en la Comisión organizada por filólogos y en los peritajes del juicio constatamos: 1, asunción previa de falsedad; 2, ausencia de un proceso de autenticación; 3, inexistencia de un retrato de motivaciones y procedimientos de uno o varios falsificadores, sin el que estos no pueden ser reconocidos; 4, no aplicación de un procedimiento científico; 5, no observación o invalidación de observaciones objetivas de antigüedad; 6, reconocimiento y validación de observaciones inexistentes; 7, interpretación parcial de los hechos; 8, inexistencia de un procedimiento racional; 9, no justificación mediante datos de las aseveraciones, convertidas en meras impresiones subjetivas.

La filología, por medio de unos ilustres representantes tuvo la oportunidad de promocionarse como procedimiento científico en la autenticación de inscripciones antiguas sobre óstrakon. Pero su respuesta a este reto ha sido un fracaso completo, porque objetos que se han exhumado en circunstancias semejantes, los de Iruña-Veleia y el de Irulegi, los diagnostican de manera opuesta. Esto evidencia un uso deficiente de las observaciones de base y la plasmación de prejuicios subjetivos. En un procedimiento científico las observaciones repetidas deben dar diagnósticos semejantes. Así, en Irulegi no se reconoció el texto en el momento de la extracción del objeto, como en Iruña-Veleia (excepto en este último yacimiento en algunos óstraca coordinados). La explicación es la misma en los dos casos: las inscripciones están cubiertas por capas variadas y se pueden demostrar esas circunstancias en ambos. Sin embargo, el diagnóstico es opuesto, de veracidad y de falsedad respectivamente.

En estas elaboraciones de los filólogos comentadas observamos que la Filología carece de método a aplicar en el estudio de epígrafes antiguos porque no quiere utilizar los procedimientos de otras disciplinas y en particular el método propio de un proceso de autenticación. La razón es que su papel es accesorio en todos los casos en los que el texto proviene de una investigación arqueológica. Solo tiene un papel más relevante en el caso de los epígrafes aislados. Pero aún en este último debe emplearse la propia crítica histórica y los elementos de trazabilidad interna de la pieza en cuestión (por ejemplo, la composición del objeto fabricado).



3. irudia. IR 13396a hezurra, zeramika arrunteko zati baten gainean, garbiketa osatugabea (gune horia), trazuak patina ilunez edo zarakar zaharrez estalita dituzten bost lerro grabatuta dituena, antzinasunaren froga. Testua: AIII, I / I, LIIIO/GI, MAI/IIDA, IAN/SUTI. Iturria: Ostracabase.com. Eskalik gabeko argazki originala.

Fig. 3. Óstracon IR 13396A sobre fragmento de cerámica común con lavado incompleto (zona amarilla) que muestra cinco líneas grabadas con los trazos cubiertos por pátina oscura o costra antigua, prueba de antigüedad. Texto: AIII, I / I, LIIIO / GI, MAI / IIDA, IAN / SUTI. Fuente: Ostracabase.com. Fotografía original sin escala.

Pero debe repetirse cuál es el proceso de validación de los grafitos grabados de Iruña-Veleia: 1) son todos verdaderos porque han sido recuperados en un estrato arqueológico, y lo seguirán siendo mientras no se realice una excavación forense en los mismos espacios donde se documentaron con resultados no coincidentes; 2) son verdaderos todos los que muestran tierras carbonatadas dentro de los surcos grabados, o restos de capas carbonáticas y fosfóricas (Albisu 2009 y 2020 y Van den Driesche 2009, 2014 y 2016), y lo seguirán siendo mientras no se extraigan muestras de esos surcos y se analice la superficie del surco puesto al descubierto en esa acción, determinándose restos modernos; 3) son verdaderos todos los que muestran estigmas variados (destrucciones, erosiones, alteraciones por el fuego del surco grabado) producto del paso del tiempo, y lo seguirán siendo mientras no se demuestre que es posible falsificarlos mediante procesos de envejecimiento de los objetos, cuestión que ni se ha planteado.

Estos tres elementos permiten la recomposición de la trazabilidad interna y externa de los grafitos. Es decir, el primero compete a la arqueología; el segundo a la arqueometría, ciencias aplicadas a los restos materiales antiguos, como el tercero, también objeto de la crítica histórica. También permiten una validación complementaria los mensajes grabados cuando muestran expresiones y temas si son expresión de un tiempo histórico dado. Estos son el objeto de la Filología y de la Historia, ambas disciplinas aplicadas mediante procedimientos críticos y no sesgados. En todo caso, estas no son competentes por encima de las anteriores para la determinación de la veracidad, sino subsidiarias de ellas.

De todo lo anterior se vislumbra el peligro de que los filólogos tengan la última palabra en procesos de autenticación como los relatados. Simplemente, se deben callar hasta que las disciplinas científicas determinen el diagnóstico que les corresponde. En caso contrario podemos llegar a despropósitos como el relatado en el caso de Iruña-Veleia. En este último se observa un boicoteo sistemático a lo largo del tiempo hasta nuestros días, tanto por filólogos como por autoridades aleccionadas por ellos, a aplicar estudios arqueométricos que pudieran desvelar la verdadera antigüedad de los grafitos.

Los filólogos nos plantean una trampa intelectual cuando establecen de entrada que los óstraca de Iruña-Veleia son falsos y, de entrada también, que el epígrafe de Irulegi es verdadero. El análisis está viciado por esos hechos previos que, en realidad, afectan únicamente al caso de Iruña-Veleia, por haberse diagnosticado su falsedad sin pruebas. Ciertos filólogos se niegan a reconocer nada de la antigüedad de esos óstraca postulando una conclusión disparatada de falsedad y, al tiempo, la imposibilidad de

discutirla científicamente impide la revocación del sinsentido.

Por medio de esa interpretación ciertos filólogos se colocan indefectiblemente en los parámetros asociados hoy en día a los conspiranoicos y negacionistas varios. Todos tienen en común el no reconocimiento de evidencias o hechos objetivos, el uso de sesgos cognitivos que refuerzan sus prejuicios, la ausencia de discusión científica y la negación irracional del otro.

Sin embargo unos, los de Iruña-Veleia, y otro, el de Irulegi, son grafitos verdaderos, porque han sido reconocidos en estratos arqueológicos, porque tienen alteraciones de todo tipo producto del paso del tiempo, y porque portan un mensaje original o solo parcialmente entendido, menos en el caso de Irulegi por su mayor antigüedad. Estos son pruebas incontestables y comprobables solo arqueológicamente o mediante arqueometría.

Que esos filólogos recreen la información para establecer un diagnóstico sobre datos que no pueden ser refrendados solo tiene una explicación, teniendo en cuenta su supuesta categoría académica, la existencia de un sesgo cognitivo que nace de la consideración previa que asumen sin ninguna crítica, de que todo es falso. Que, además, no tengan ni siquiera la prevención de establecer una discusión crítica es la segunda sorpresa del análisis que aportan esos filólogos.

Nosotros seguimos teniendo confianza en las ciencias, aun las humanas. No renunciamos a aplicar en ellas los procedimientos científicos y a expresar datos objetivos relevantes de época para la construcción de las hipótesis. También confiamos que otros filólogos sin prejuicios apliquen sus procedimientos objetivos y científicos propios en la búsqueda de una construcción lógica basada en datos y no en juicios previos o en creencias.

Mientras tanto seguiremos peleando contra la desinformación, contra la ignorancia buscada a propósito, desde la crítica histórica, en un combate que sabemos sin fin. Y, en consecuencia, seguiremos observando y anotando elementos observables en los grafitos y que interpretamos como indicios relevantes de antigüedad e incluso pruebas de ella, como lo son las capas recurrentes de diversa composición que cubren los trazos grabados.